

JESUS ELOSEGI IRAZUSTA
(1907-1979)

Gobon gauaz, Antonio M. Labaienen etxetik zetorrela, hil zaigu tolosar ospetsu hau. Etxetik kanpo egin zuen Gabon afaria, eta bihotz-minduna zenez gero, kotxean emaztearekin zetorrela joan zitzaion arnasa. Goian bego.

Tolosan jaioa zen Elosegi 1907.ean. Gaztetatik sartu zen Tolosako euskal giroan dantzari eta txistulari bezala. Eta euskarari dagokion alorrean Lizardi bertan edukitzea ezan zori makala berarekin menderatu



JESUS ELOSEGI IRAZUSTA
(1907-1979)

zuen hizkuntza eta. 1930.ean hasi zen euskaraz idazten *Argia* asterokoan baita ere *El Dia* egunkarian. Baina izatez Arkeolojia izan zen haren zaletasunik handiena. 1947.ean sortu zuen Aranzadi Zientzi Elkarte eta *Munibe* aldizkarian hainbat eta hainbat ikerlan argitara eman zituen. Elkartearen idazkaria izan zen 1972.arte eta orduandanik aurrerantzean Ohorezko Bazkide.

Elosegiren ikerlanak ikusi nahi dituenak hainbat aldizkaritara jo beharko du: *Zeruko Argia*, *Goiz Argi*, *Ikuska*, *Egan*, *BRSBAP*, *Pyrenaica*, *Munibe*, *Speleon*, *Pirineos*, *Homenaje a Julio de Urquijo*, *Archives de Zoologie Experimentale*, *Boletin de la Sociedad Española de Historia Natural*, *Homenaje a don Joaquín de Mendizábal*, etabar. Batzutan Zimitz edo R. de Gainza izenordeekin agertzen dira argitaratuak. Beraren lanik mami-tuen artean aipatu beharrezkoak dira:

- *Catálogo dolménico del País Vasco.*
- *Toponimia de Aralar.*
- *Las minas de cobre de Aralar.*
- *Juan Ignacio de Iztueta y Echebarria* (Auñamendi 65-66).

Bestaldez izugarritzko lana utzi zigun *RIEV*, *BRSBAP* eta *Munibe* aldizkariaren aurkibideak idazlez idazle emanik. Kirol zalea ere bait zen txikitatik mendigoizale zaletasuna ere bait zekarren. Gipuzkoar kirolarien markarik onenak aztertu eta xehetasun guztiekin eman zizkigun.

Euskaltzaindiak Euskaltzain urgazle izendatu zuen 1965.eko Irailaren 25ean. Abenduko bileran toponimiaz aritu zen Elosegi eta 1968.eko Abuztuaren 30ean irakurri zuen toponimiari buruzko txostena. Toki-izenez bost mila fitxa eginak zituela adierazi zuen orduan Elosegik, eta Euskaltzaindiaren ardurapean laga nahi zituela. Berrondo jaunaren eskuetan utzi zuen Elosegik arazo hau baina oraindik, ez dira fitxak Euskaltzaindikoko artxiboetara iritsi. 1953.ean, Beloki, Sansinenea de Elosegi eta Mitxelena jaunekin elkar lanean "Contribución al conocimiento del dialecto roncalés" lana argitara eman zuen RSVAP-en Boletinean. (Cuaderno 4.º, 499-536 orr.).

Tolosako Sakramentinoen elizan egin zitzaion hiletetako eleizkizuna Donestebe egunean. Jendez gainezka zegoen eliza eta hainbat euskalzale eta kultur gizon bildu ziren Elosegiri azken agurra emateko. Hala azaldu zuen herriak zenbaiteraino maite zuen gizon zintzo eta langile hau. Isilean egindako lanaren oihartzuna beti izango dugu bizirik gure kulturaren onerako.

Jose Antonio Arana Martija